

AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, BITARTEKARITZA- ETA ENPLEGATZE-ZERBITZUA EMATEKO LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN ETA ENPLEGATZE-AGENTZIEN ARTEKO AKORDIO IREKIAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUAREN PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jarduerara, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko; hain zuzen, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak, eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Aipatutako legearen 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta lege beraren 13. artikulua, bestalde, zehazten du zer eduki jaso beharko dituen prozedura hasteko agindu horrek.

Azaldutako guztia ikusita, Agindu honen bidez betetzen da aurreko artikuluek agintzen dutena.

Era berean, kontuan hartzen da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutakoa, hor ezartzen baita arauen kalitatearen zer printzipio bete behar diren erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, kasu honetan interesatzen zaigunerako.

Azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Hasiera ematea "*Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituen Dekretuaren proiektua*" egiteko prozedurari, zeina jarraian xedatutakoari egokituko baitzaio.

a) Dekretu-proiektuaren helburua eta xedea.

Proiektatutako xedapenaren xedea da enplegatze-agentzien eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko lankidetzaren antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 57. artikuluan araututako akordio irekiak sinatuz.

Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legearen xedatutakoaren arabera, lan-bitartekaritza zerbitzu publikoa da, eta enplegu-zerbitzu publiko guztiek bermatu behar dute.

Horrela, bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen araututako Enpleguaren Euskal Sarearen Zerbitzu Zorroan sartuta dago. Lege horrek 32. artikuluan ezartzen duenez, bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzuaren helburua izango da enplegu-eskaintzak identifikatu eta kudeatzea, eta eskaintzetara ondoen egokitzen diren erabiltzaileekin lotzea, haien profil eta kompetentzien arabera.



Enplegu-zerbitzu publikoez gain (estatuko araudi aplikagarria), Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legeak eta haren erregelamendu bidezko garapenek bitartekotza-eragiletzat hartzen dituzte enplegatze-agentziak, eta modu berezian aipatzen dituzte haien laguntzaile posible gisa zerbitzu hori kudeatzeko, lankidetzaz sustatzeko berariazko deia eginez.

Illo horretan, 3/2023 Legeak 41. artikuluan ezartzen duenez, Enplegu Sistema Nazionalaren ondorioetarako, lan-merkatuan enplegu-zerbitzu publikoen eta enplegatze-agentzien bidez soilik egingo da bitartekotza, hargatik eragotzi gabe atzerrian lan egiten dutenentzat erregelamenduz zehazten diren beste zerbitzu batzuk. Eta, xedapen horretan jasotzen den bezala, enplegatze-agentziek enplegu-zerbitzu publikoekin koordinatuta edo haien entitate laguntzaile gisa egin dezakete beren jardura.

Era berean, apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuak, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna eta otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituenak, 15. artikuluan ezartzen du bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzuen berezko jarduerak lankidetzaz publiko-publikoaren edo publiko-pribatuaren bidez garatu ahal izango direla, eta 38.1 artikuluan berariaz aurreikusten du enplegu-zerbitzu publikoek bereziki sustatuko dutela enplegatze-agentziekiko lankidetzaz.

Lan-bitartekaritzaren arloko jarduerak garatzea ere aurreikusita dago Enplegu Sistema Nazionalaren enplegua aktibatzeako programa komun gisa, irailaren 28ko 818/2021 Errege Dekretuan araututakoaren arabera. Dekretu horren arabera, programa hori zeharkako kudeaketaren bidez kudeatzen denean, enplegu-agentzia publiko edo pribatuaren lankidetzarekin egingo da.

Halaber, enplegatze-agentziak arautzen dituen abenduaren 30eko 1796/2010 Errege Dekretuak, Enplegu Legearen aurkakoa ez den guztian indarrean baitago, enplegatze-agentzien eta enplegu-zerbitzu publikoen arteko lankidetzaz arautzen du, bien arteko hitzarmenen bitartez, eta enplegu-zerbitzu publikoei eskumena aitortzen die, bakoitzak bere lurralde-eremuan, akordio horiek sinatzeko prozedura ezartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legean araututako Enpleguaren Euskal Sarearen zerbitzu-zorroan sartuta dago. Lege horren 56.3 artikuluan enplegatze-agentzien eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren arteko lankidetzaz aurreikusten da, eta, horretarako, xedatzen du lankidetzaz hitzarmenak sinatu ahal izango dituela enplegatze-agentziekin, dirulaguntzak eman ahal izango dituela edo beste edozein lankidetzaz hitzarmen ezarri ahal izango duela, sektore publikoko kontratuei buruzko legean xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, baldin eta dagokion gaia bere esparruan sartzen bada.

Lanean hasi zenetik, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak inoiz edo behin baliatu du enplegatze-agentzien lankidetzaz, kontratazio-prozeduren bidez. Eta izaera orokorragoarekin, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren bidez (2015eko otsailaren 2ko EHAA) ezarritako prozeduraren arabera, enplegatze-agentziak, baldintza jakin batzuk betez gero, Lanbideren erakunde laguntzaile izan daitezke, enplegu-eskaintzak biltzeari eta erregistratzeari dagokionez soilik, Lanbidek dituen tresnak eta datu-baseak erabiliz, inolako ordainsaririk gabe. Prozedura hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari

nagusiaren 2022ko urriaren 27ko Ebazpenaren bidez eguneratu zen (2022ko azaroaren 7ko EHAA).

Hasitako prozedurari dagokion dekretu-proiektuaren bidez, enplegu-agentziekiko lankidetzaren areagotu nahi da, kudeatutako enplegu-eskaintzen kopurua handitzeko, eta, horrela, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonak benetan laneratzeko azken helburuan emaitza gehiago eta hobeak lortzeko.

Lankidetzaren hori egituratzeko, 15/2023 Legearen 56.2 artikuluan b) letran aurreikusitako akordio irekien figurara jotzen da, Lanbidek bere zerbitzuak emateko kanpoko erakundearen lankidetzaren ezar dezakeen formulako bat gisa. Formula hori 57. artikuluan arautzen da, eta horri esker, interesa duten eta aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten enplegu-agentzia guztiek parte hartu ahal izango dute, haien artean hautatu gabe, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen eskura ahalik eta enplegu-eskaintza gehien jartzeko.

15/2023 Legearen 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektatutako arauak, besteak beste, honako hauek erregulatzen ditu: akordio irekiak sinatzeko baimena emateko prozedura, enplegatze-agentzia interesdunek bete beharreko baldintzak, egin beharreko jarduketak, ordainsari ekonomikoa eta ordainketa-dinamika, eta enplegatze-agentzien jardura ebaluatzeko irizpideak, eraginkortasuna eta efizientzia bermatze aldera.

b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Apartatu honetan, ekimen hau babesten duen indarreko zuzenbidea aipatu behar da, gai hauei dagokienez: lan-bitartekaritza, zerbitzu hori emateko enplegatze-agentziekiko lankidetzaren lankidetzaren hori artikulatzen duen sistema berria (akordio irekiak), eskumen-banaketaren ordenara egokitzeari eta erregulazio onaren printzipioetara egokitzeari buruzko azterketa barne.

Araudi berriarekin egituratu nahi den enplegu-agentziekiko lankidetzaren lan-bitartekaritza buruzkoa da, eta hori kokatzen den esparru materiala enplegua da. Konstituzionaltasun-blokeko eskumenari dagokienez, enpleguaren arloa lotuta dago lan-legeriari eta garapen ekonomikoari buruzko eskumen-tituluekin. Testuingurua honako hau da:

- Espainiako Konstituzioaren 40. eta 41. artikuluek botere publikoei eskatzen diete egin dezatela enplegurako politika bat eta, langabeziarik egonez gero, ezar dezatela laguntza eta prestazio nahikoa.

- Agindu horri erantzunez, Espainiako Konstituzioaren 148.1.13. artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek bere gain har ditzaketela sustapen ekonomikoko eskumenak, politika ekonomiko nazionalak finkatutako helburuen barruan; halaber, 149.1.13 artikuluan bidez, Estatuak eskumen eskusiboa gordeko du jardura ekonomikoaren plangintza orokorreko oinarrien gainean eta koordinazioaren gainean.

- 149.7 artikuluan estatuari esleitzen zaio lan arloko legegintzako eskumen eskusiboa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek hura betearaztea.

- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren (aurrerantzean, EAEko Autonomia Estatutua) 9.2 artikulua b) eta c) letretan xedatzen da euskal botere publikoek, nor bere eskumen-alorretan, bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko politika bultzatuko dutela, eta neurriak hartuko dituztela enplegua eta egonkortasun ekonomikoa areagotzeko.

- Era berean, Autonomia Estatutuaren 10.25 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du Euskadiko jardura ekonomikoa sustatu, garatu eta planifikatzeko ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera.

- Eta, lan-arloko legeriari dagokionez, hori betearaztea Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola ezartzen du EAEko Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua.

Illo horretan, Transferentzien Batzorde Mistoaren 2010eko urriaren 28ko Erabakiaren bidez (azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren eta azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuaren bidez onartu zen), Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu zitzaizkion lanaren, enpleguaren eta lanbide-heziketarako prestakuntzaren esparruan lan-arloko legeria betearazteko eginkizun eta zerbitzuak, ordura arte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak gauzatzen zituenak.

Aipatu Erabakiak B apartatuan jasotzen ditu Estatuko Administrazioari dagozkion eginkizun eta zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu dituenak; horien artean, lan-bitartekaritzaren gaiari dagozkionak daude.

Euskal Autonomia Erkidegoan, enpleguaren arloko eskumena Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 7.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak 16 l) artikuluan xedatzen duenez, Enplegu Zuzendaritzari dagokio Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legea garatzeko arau-proposamenak egitea.

Enplegu-politika aktiboen arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zirenetik, lan-bitartekaritza Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen du, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikitako erakunde autonomoa baita, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako estatutuen 3. g) artikuluan jasotzen den bezala.

Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak Lanbideren izaera juridikoa aldatu zuen, organismo autonomoa zena zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzeko, baina eraldaketa hori ez zen gauzatu Legea indarrean sartu zenean. Hasiera batean, bosgarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan 2025eko urtarrilaren 1a aurreikusi zen ondorio-data gisa, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak, azken xedapenetako hirugarrenean, data hori atzeratu egin duen, haren “*estatutuak indarrean sartu arte*”. Agindu hau egiteko unean, estatutuak onartzen dituen dekretu-proiektua izapidetzearen azken fasean dago, eta aurreikusita dago izapidetzen hasi den dekretu-proiektua onartu aurretik jarriko dela indarrean. Beraz, horren edukia eta bertan Lanbideri buruz egiten diren aipamenak bat etorriko dira zuzenbide pribatuko erakunde

publikoaren izaera berriarekin eta "publikoa" terminoa barne hartzen duen izendapen berriarekin.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eginkizunen artean, lan-bitartekaritzaren kudeaketa jasotzen du 15/2023 Legeak, 92.1 e) artikuluan, aurreko araudian bezala. Era berean, 29. artikuluan ezartzen du Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzu guztiak emango dituela bermatuko duela, besteak beste, bitartekotza- eta enplegatze-zerbitzua, eta 48.1 c) artikuluan lan-eskaintzak kudeatzeko eta enplegu-eskatzaleei esleitzeko eginkizuna esleitzen dio modu eksklusiboan, baina honako hau gaineratuta: *«Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean enplegua aurkitzeko agentziei buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe».*

Lehen azaldu den bezala, proiektatutako dekretuaren xedea da enplegatze-agentzien eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko lankidetzaren antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko.

Enplegu-zerbitzu publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko lankidetzaren harreman hori enpleguaren arloko estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian aurreikusita eta sustatuta dago:

- Estatuko araudia:

- ✓ 3/2023 Legea, otsailaren 28koa, Enpleguarena.

41.1b, 42 y 43 artikulua

- ✓ 438/2024 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna eta otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituenak.

15.2 eta 38.1. artikulua.

- ✓ 1796/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, enplegatze-agentziak arautzen dituenak (indarrean dago Enpleguaren Legearen aurkakoa ez den guztian).

2. artikulua eta IV. kapitulua.

- Autonomia-erkidegoko araudia:

- ✓ 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena

55.3. artikulua:

«3. Bitartekaritza-zerbitzuei dagokienez, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak lankidetzaren hitzarmenak sinatu ahal izango ditu enplegatze-agentziekin, dirulaguntzak eman ahal izango ditu edo beste edozein lankidetzaren hitzarmen ezarri ahal izango du, sektore publikoko kontratuei buruzko legearen xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, baldin eta dagokion gaia bere esparruan sartzen bada.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta enplegu-agentzien arteko lankidetzak egituratzeko, akordio irekien figurara jotzea erabaki da kanpoko erakundeekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak emateko. Figura hori 15/2023 Legearen 56.2 b) artikuluan Lanbidek erabiltzeko aurreikusitako formuletakoa bat da, 57. artikuluan garatzen dena.

57. artikuluan xedatzen denez, *“akordio irekitzat joko dira hainbat entitatek zerbitzuaren eskaintzan parte hartzea ahalbidetzen duten akordioak, baina ezin izango da entitate bat beste batzuen artean hautatu, eta entitate horiek ez dira behartuta egongo eskaintzak aurkeztera”*.

Halaber, Enpleguaren 15/2023 Legeak xedatzen duenez, akordio horien oinarri arautzaileek beti errespetatuko dituzte berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, publikotasunaren, kalitatearen, jarraitutasunaren, irisgarritasunaren eta zerbitzuaren erabilgarritasunaren printzipioak, eta pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileen premiei erantzungo diete.

Hitzarmen irekien formula hori da egokiena proiektatutako araudiaren azken helbururako, hau da, enplegu-eskaintza gehiago erakartzea langabeentzat; izan ere, interesa duten eta aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten enplegatze-agentzia guztiek parte hartzeko aukera ematen du, haien artean hautaketarik egin gabe.

Figura hori Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak kontratu publikotik kanpo uzten du operadore batzuk beste batzuen aurrean hautatzen ez dituenak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko ekainaren 2ko epaia, C-410/14 auzian, eta 2018ko martxoaren 1eko epaia, C-9/17 auzian) eta sektore publikoko kontratazioari buruzko Europako (Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren 114 kontuan hartuta) eta Estatuko araudiak bermatzen dute.

Illo horretan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 11.6 artikulua bere aplikazio-eremutik kanpo uzten du *“entitate pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten entitate guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publizitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie”*. Aldi berean, berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian, autonomia-erkidegoei aitortzen die, esleituta dituzten eskumenak baliatuz, legeak egiteko ahalmena, kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatuz arlo sozialeko beharrianak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko.

Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua, bere izaeragatik, sektore publikoko kontratuen araudiaren aplikaziotik kanpo eta Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 57. artikuluan jasotako akordio irekien araubidearen mende egon daitezkeen zerbitzuetako bat da. Gizarte-zerbitzuaren izaera dauka, haren helburua baita Konstituzioak aitortutako gizarte-eskubideetako bat, hots, lanerako eskubidea, errealitate bihurtzea.

Bestalde, 15/2023 Legean, erakunde pribatuekiko lankidetzari buruzko kapituluan arautzen dira akordio irekiak, baina hori ez da oztopo izango enplegatze-agentzia publikoekiko lankidetzari ere aplikatzeko. Ez dago hori eragozten duen inolako oinarri juridikorik, eta lehen aipatutako estatuko araudi aplikagarrian enplegatze-agentzia publiko zein pribatuei egiten zaie dei enplegu-zerbitzu publikoekiko lankidetzan jarduteko. Beste kontu bat da etorkizunean bitartekaritzaren arloko jarduketak sartu ahal izatea enplegu-politika publikoak garatzen laguntzeko Lanbideren eta toki-erakundeen artean egiten diren hitzarmenen edo programa-kontratuen xedean, 15/2023 Legearen 23. edo 86. artikuluetan xedatutakoaren babesean; kasu horretan, indarrean dauden akordio irekiak azkendu ahalko lirатеke.

Bestalde, akordio irekiak egiteko entitateak enplegatze-agentziak direnez, bermatuta dago adostutako jarduera egiteko kaudimen teknikoa dutela, beraien jarduera baita eta baldintza jakin batzuk eskatu baitzaizkie aldez aurretik horretan jarduteko. Enplegu-agentziaren jarduera gauzatzeko jada ez da behar enplegu-zerbitzu publikoen aldez aurreko baimena, baizik eta erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea soilik (2014tik, garai hartan indarrean zegoen 56/2003 Legearen 8/2014 Errege Lege Dekretuak egindako aldaketarekin). Hala ere, 3/2023 Legeak berak, 43.3 artikuluan, jarduteko zenbait baldintza eta betebeharrak ezartzen dizkie enplegu-agentziei (baita abenduaren 30eko 1796/2010 Errege Dekretua ere), eta jarduera egiten duten lurraldeko autonomia-erkidegoek egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatuko dituzte. Era berean, Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistema Publiko Integratuaren (SISPE) Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak betebeharrak eta jarduketa-baldintza batzuk ezarri dizkie enplegu-agentziei. Betebeharrak eta baldintza horiek aurkeztu behar duten aitortze-ereduan sartu dira, eta jarduera egiten duten lurraldeko enplegu-zerbitzu publikoek egiaztatu ahal izango dute eredu hori betetzen dutela. Baldintza eta konpromiso batzuk jasotzen dira, hala nola baliabide material jakin batzuk izatea (metodologia egokia, enplegu-zerbitzu publikoetakoekin bateragarriak diren sistema informatikoak, lantoki egokiak) eta esperientzia jakin bat izatea enplegu-programak gauzatzen edo giza baliabideak kudeatzen, bai eta konpromiso batzuk ere, besteak beste, titulazio- eta esperientzia-baldintza jakin batzuk betetzen dituzten langile egokiak izatea.

Azaldutako guztiarekin, justifikatutzat jotzen da proiektatutako arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

c) Ordenamendu juridikoaren gainerako ondorioak.

Proiektatutako arauak sistema berri bat arautuko du kanpoko erakundeek lankidetzan artikulatzeko, zehazki, enplegatze-agentziena, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuarekin.

Ez du eraginik izango indarrean dauden arauetan. Ez du aldatzen edo indargabetzen lehendik dagoen araurik.

Arau honek Estatuko araudian eta autonomia-erkidegoko araudian aurreikusitako bitartekaritzaren arloko enplegu-zerbitzu publikoaren eta enplegu-agentzien arteko lankidetzan gauzatzen du, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 56. artikuluan 2.b) apartatuan jasotako eta 57. artikuluan araututako formula zehatz baten bidez

d) Inpaktua ebaluatzeko txostena.

Agindu honen f) letrako 3. zenbakian aipatzen den generoaren arabera eraginari buruzko txostenaz gain, araudi berriak honako gai hauetan duen eragina ebaluatu behar da:

- haurrak eta nerabeak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera
- familia, Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera
- enpresa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) EAEren eta, bereziki, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuan izan dezakeen eraginari buruzko aurreikuspena. Irabaziak, administrazio-kargak eta enpresa txiki eta ertainen gaineko inpaktua.

Dekretu-proiektuak aurreikusten du enplegatze-agentziei ordainsari bat ematea adostutako jarduketak egiteagatik, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuaren kargura ordainduko dena.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da aurrekontuan izango duen eragina berariazko memoria ekonomikoaren bidez aztertzea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proposamenak dakartzan onura eta karga administratiboei dagokienez, baimenen prozedura sinplifikatzeko ahalegina egin beharko da, izapidetze elektronikoaren bitartez eta ahalik eta dokumentazio gutxiena eskatuz erakunde onuradunei, ekainaren 28ko 16/2012 Legeak, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoak, III. kapituluaren sustatzen duen karga administratiboen murrizketaren ildotik.

f) Zer izapide eta txosten jotzen diren bidezkotzat.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluan e) apartatuan xedatutakoari jarraikiz, prozedura hasteko aginduak zehaztuko du zein diren bidezko iritzitako izapide eta txostenak, proposatu den araudiaren gaia eta edukia aintzat hartuta. Adierazitakoa kontuan harturik, aurreikusitako dekretu-proiektua idazteko eta onartzeko hasiera batean eskatzen diren izapideak eta txostenak hauek dira:

1.- Prozedura hasteko Agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoan

jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidez kotasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau ezagutza partekatuko “Legesarea” lankidetzaren espazioan argitaratuko da, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. zenbakian xedatutakoarekin bat etorritik.

2.- Testua idaztea.

Dekretu-proiektuaren testua Agindu honen edukia aintzat hartuta idatziko da, eta lortu nahi diren helburuei ondoen egokitzen zaizkien aukerak hartuko dira kontuan, beharrezko eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak betez eta lege-aurreproiektuaren egokitasuna eta legez kotasuna bermatzeko egiten diren kontsulten emaitza aintzat hartuta, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantz, APEL) 129. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Testuan behar bezala azaldu beharko dira dekretu-proiektua egiteko erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta oinarri juridikoak, 6/2022 Legearen 14.2 artikulua eta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. puntuak ezartzen duten moduan; Xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen ditu erabaki horrek (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

Testua ele bitan idatzi beharko da, alde aurreko onarpena jaso eta izapidetu aurretik. Araua idazteko prozesu osoan, hizkuntza-bertsioak landu bitartean, hizkuntza bien arteko berdintasuna bermatuko da, eta hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiliko da, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen moduan eta Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen Erabakian ezarritakoa aplikatuz. Erabaki horrek neurriak onartu zituen lege, legegintzako dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko.

3.- Generoaren arabera eraginari buruzko txostena.

6/2022 Legearen 14.4 artikulua ezartzen duenaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren generoaren arabera eraginari buruzko txosten bat idatzi eta Emakunderen eskura jarriko da, legedian jasotakoa perfektionatzeko.

Txosten horren beharra bat dator martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 20. artikuluan ezarritakoarekin; eta, hori egiteko, *generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna*

bultzatzeko neurriak hartzeari buruzko Jarraibideak beteko dira. Jarraibideak Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren, eta erabakia 2012ko irailaren 25eko EHAAn argitaratu zen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez.

4.- Arau-eraginaren azterketaren memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak, nahitaez, arau-eraginaren azterketaren memoria egingo du, aipatu xedapenean aurreikusitako moduan eta bertan aipatutako edukiak kontuan hartuta.

5.- Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Memoria ekonomikoa.

Esan bezala, dekretu-proiektuan araututako akordio irekiak sinatzeak Lanbideren aurrekontuaren kargura finantzatu beharreko gastua ekarriko duela kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da berariazko memoria ekonomiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

7.- Araudi-proiektuaren aldez aurreko onarpena eta egoitza elektronikoa eta "Legesarea"n argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dekretu-proiektuak Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren onespena jaso beharko du, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Aldez aurreko onarpen-aginduekin batera, onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatuetan adierazitako gainerako dokumentuak aurkeztuko dira. Horiek guztiek osatuko dute espedienteak.

Aldez aurretik onartuta dagoen xedapenen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratuko da, bereziki 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan adierazitako ondorioetarako, kontuan hartuta argitalpen horren data izango dela aldi berean bideratzen diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera.

Hala aldez aurreko onarpenaren agindua nola araugintza-proiektua Legesarea lankidetzagunean argitara emango dira (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 2. puntua).

8.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Araudiaren testuak aldez aurreko onarpena jaso ondoren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egin beharko da, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoa; horrekin batera, herritarren parte-harteari buruzko baldintza beteko da, herritarrei aldez aurretik kontsulta egiteko beharrik gabe; izan ere, hori bat dator 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan, Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen Erabakiaren (arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzekoa) lehenengo apartatuaren 5. puntuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.4 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoarekin.

Jarraitutasunez edo beste une batean egitea eskatzen ez duten izapideekin batera egingo dira entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak, biak epe berean, aldez aurretiko onespena jaso duen testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera (6/2022 Legearen 17.3 artikulua).

Kontuan hartuta proiektatutako Dekretua onartzeak zuzenean eragiten dien erakundeak enplegatze-agentziak direla eta zaila dela haiengana banaka iristea, enplegatze-agentziek beren interesak ordezkatzeko sortutako bi elkarten bitartez (ANAC – Asociación Nacional de Agencias de Colocación eta ASDACE – Asociación de Agencias de Empleo) emango zaie entzunaldia, eta entzunaldia emango zaio, halaber, Confebask – Euskal Enpresarien Konfederakuntzari.

Enplegu-agentzia publikoei dagokienez, Foru Aldundiei eta EUDELi egindako kontsultarekin betetzen da entzunaldia, hurrengo apartatuan aipatzen den bezala.

Era berean, entzunaldia eman behar zaie Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkotzarik handiena duten sindikatuak (ELA, LAB, UGT eta CCOO).

9.- Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartzea eta haiei kontsulta egitea.

Aldi berean, beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapidea beteko da, 6/2022 Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoa. Izapide hori EUDELen (Euskadiko Udalen Elkartea) bidez egingo da, eta kontsulta bidaliko zaie lurralde historikoetako hiru aldundiei, kontuan hartuta administrazio horiek Enpleguaren Euskal Sareko kide direla eta enplegu-politika aktiboen eremuan jarduerak garatzen dituztela. Era berean, udal batzuk eta tokiko sektore publikoko beste erakunde batzuk enplegatze-agentzia gisa eratu dira.

10.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura instruitzean, dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak egiteko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako hauek bildu behar dira:

- Aldi berean, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, txosten hauek eskatuko dira:
 - ✓ Enplegu Politika Publikoen Kontseiluaren txostena, hala xedatuta baitago Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 71.1.a) artikuluan.
 - ✓ Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27 a) 1 artikulua araberak.
 - ✓ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikuluan xedatutakoaren arabera (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).
 - ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan xedatutakoari dagokionez, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2 k) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
 - ✓ Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. eta 7.3.b artikuluetan xedatutakoaren arabera.
 - ✓ Datuak Babesteko Euskal Agintaritza, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. eta 7.3.b artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.
 - ✓ Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saileko Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21.1 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Aurreko izapideak amaituta, jarraian beteko diren funtsezko txostenak:

- ✓ Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, maiatzaren 17ko 8/2012 Legeak (Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak) 3.1.b) artikuluan ezartzen duena aintzat hartuta.

6/2022 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- ✓ Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren arau- eta ekonomia-kontroleko txostena, bi arau hauetan ezarritakoari jarraikiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testuategina (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita nola egin barruko kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea EAEn.

6/2022 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

- ✓ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena, azaroaren 24ko 9/2004 Legeak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarenak, 3.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, kontsultarako aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren legeak garatu edo betearazteko ematen dituen erregelamendu-xedapenen proiektuak.

Proiektatutako arauak Eusko Legebiltzarrak onartutako Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 57. artikulua garatzen du.

11.– Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioak osatuko du; prozedura osoari buruzko memoria laburra erantsiko zaio, aipatu 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.- Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Ez da beharrezkoa Europar Batasunaren aurrean inolako izapidetik egitea, eta ez zaio aplikatu behar Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 6/05 Zirkularrean ezarritakoa, dekretu-proiektuak ez baitu dirulaguntza-programarik arautzen.

13.- Gardentasuna.

“Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituen Dekretuaren proiektua” egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio osoa Euskal Araudiaren Atarian (Legegunean) argitaratu behar da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen xedatutakoarekin bat.

14.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egite-prozedura amaitzean, dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

g) Proiektuaren itzulpena edo idazketa elebiduna egiteko teknika.

Dekretu-proiektua idaztea, lege-, legegintzako dekretu-, dekretu- edo agindu-mailako xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartuaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartu zituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiaren arabera.

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak (Euskararen Erabilera Normalizatzekoak) 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko; betiere, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera (zeinaren bidez agindu baitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko).

h) Prozedura Tramitagune bidez izapidetzea.

“Tramitagune” aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da prozedura, Gobernu Kontseiluaren erabaki hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, Xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

Bigarrena.- Enplegu Zuzendaritza izendatzea arestian adierazitako proiektua izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta “Legesarea” lankidetz-espazioan, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an hartu zuen Erabakian xedatutakoa betez (xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen erabakia).

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

MIGUEL TORRES LORENZO

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua.